



2024ko azaroaren 11n, alkatetza honek ebatzi du ondorengo

“DEKRETUA

Anoetan, sinaduraren datan.

Udal honetako 2024 urterako Aurrekontu Orokorretan (GAO, 24. zk., 2024/02/02) honako aurrekontu-partida hau dago:

- 1.0000.480.335.10.01: Dirulaguntza. Herritarren euskalduntze eta alfabetatzea.

Partida horrek 7.000 euroko kontsignazioa du.

Anoetako 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak (GAO, 72. zk, 2022/04/19) honako dirulaguntza hau jasotzen du Euskara Sailaren baitan:

“...

Dirulaguntza lerroa: Euskalduntze eta alfabetatzea

Eskumen arloa	Euskara
Sektore hartzaileak	Euskaltegi edo barnetegietan euskara ikasten ari diren herritarrak
Helburuak	Anoetako herritarrei euskara ikasteko edo hobetzeko laguntza ematea.
Lortu nahi diren ondorioak	Anoetako herritarren artean euskararen ezagutza maila handitzea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziaketa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Deialdia argitaratu ondoren, eskatzaileak eskaera egin behar du. Banan banan aztertzen dira eskaerak eta hartzen da dagokion erabakia, beti ere aurrekontuko partidaren zehaztutako kopuruaren menpe.
Jarraipena eta ebaluazioa	Ikasturte amaieran, justifikazio-dokumentuak aurkeztu beharko ditu onuradunak, emandako laguntzak bere helburua bete duela ziurtatzeko.

Partida	Onuraduna	Azalpena	Kopurua	Mota	Indarreko planean aurreikusia
1 0000.480.335.10.01	Herritarrak	Euskalduntze eta alfabetatzea	7.000 €	Deialdia norgehiagoka	21.000 €

...”.

2024ko urriaren 21ean Euskara teknikariak deialdi-proposamena aurkeztu du 2024. urtean euskara ikasten duten herritarrei dirulaguntzak emateko.

Idazkari kontu-hartzaileak hiru txosten egin ditu: dirulaguntza emateko jarraitu beharreko prozeduraren gainekoa, ebazpen aurretikoa eta “A” faseko fiskalizazioarena.

Dokumentazioa aztertu da, Idazkaritza Kontu-hartzailearen txostenak ikusi dira, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 23. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) eta s) artikuluetan eta Anoetako Udalaren dirulaguntzak emateari buruzko araudiaren 7.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honakoa



EBATZI DUT:

Lehenengoa. Onartzea 2024. urtean euskara ikasten aritu diren Anoetako herritarrei dirulaguntzak emateko deialdia, espedienteen ageri den testuarekin.

Bigarrena. Onartzea 7.000 euroko gastua:

Partida	Onuraduna	Azalpena	Kopurua	Mota
1 0000.480.335.10.01	Herritarrek	Euskalduntze eta alfabetatzea	7.000 €	Deialdia norgehiagoka

Hirugarrena. Dirulaguntzen datu-base nazionalen sartu beharreko informazioa erregistratzea, deialdiaren testuarekin, laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, Dirulaguntzen datu-base nazionalak deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku jarriko du, argitara dadin. Laburpenaren argitalpenean, Dirulaguntzen datu-base nazionalak deialdiari esleitu dion identifikazio-kodea jaso beharko da.

Oinarriak eta deialdia Udaleko iragarki taulan eta web orrian ere argitaratu beharko dira.

Laugarrena. Euskara teknikaria izendatzea instrukzio-organo.

Bosgarrena. Euskara teknikaria, Amaia Urkola Arocena eta Mikel Olano Aburuza izendatzea kide anitzeko organoko kide.

Honela agindu eta sinatu du Egoitz Luisa Urkola alkateak eta neuk, idazkariak, fede eman.”

Ebazpen honek amaiera ematen dio bide administratiboari eta, beraren aurka, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, BI HILABETEKO epean.

Hala nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da organo honen aurrean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, HILABETEKO epean. Aukerako berraztertze-errekurtsoa jartzea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo isiltasunez ezetsi arte.

Interesatuak, halaber, tartekatu ahal izango du interesgarritzat joko duen beste edozein errekurtso ere.

Anoetan, sinaduraren datan.

Idazkaria